

Informazio-teknologiako ekipamenduen garapenak erritmo onean darrai euskal enpresetan 2007.ean


Euskadiko enpresen %61,6k Interneteko sarbidea du, ADSL lerroen bidez nagusiki

Eustaten datuen arabera, euskal enpresetako IKT- Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak- haziz doaz 2007ko hasieran.

Ekipamendu nagusien azken urteetako hobekuntza etengabea izan da; establezimenduen %70,7k ordenagailua du, azken urtean %2,1eko igoseraren ondoren; Internet %61,6k dute, hazkundera %5,2 izan delarik; eta posta elektronikoa %57,6k, %5,6 hazi ondoren. Sakelako telefonoaren kasuen %75,8an agertzen da, hiru ehunekotan hazi da, eta gehien hedatutako ekipamendua izaten segitzen du.

Euskal enpresetako IKT ekipamenduen bilakaerari erreparatuz gero ikusten da 2004ko moteltzearen ondoren azken hiru urteetan hazkunde tasak berreskuratu egin direla.

1.grafikoa: IKT ekipamenduen bilakaera euskal enpresetan (%)



Iturria: Eustat.

Teknologia hauek darabiltzaten enplegatuen portzentajeak egonkor dirau, pittin bat hazi da. Ordenagailua pertsonalaren %59,1ek darabil; %49,2k Interneteko sarbidea du eta posta elektronikoa %48,4k.

1. taula: IKT ekipamenduak darabiltzaten enpleguatuak, establezimenduaren tamainaren eta eskualdearen arabera 2007 urtea (%)

	Ordenagailu personala		Posta elektronikoa		Internet	
	Establezimenduak guztira	10 langile edo gehiago	Establezimenduak guztira	10 langile edo gehiago	Establezimenduak guztira	10 langile edo gehiago
Euskal AE	59,1	59,5	48,4	50,5	49,2	49,2
Araba	58,0	56,1	45,2	45,0	44,9	42,3
Bizkaia	60,0	61,9	49,7	53,1	50,3	51,6
Gipuzkoa	58,2	57,5	47,9	49,4	49,7	49,1

Iturria: Eustat.

Garrantzitsua da adieraztea ezen teknologia horiek erabiltzen dituzten enplegatuen portzentajeak kontuan hartuta, aldeak asko txikitzen direla. Izan ere, establezimendu txikiek gehiago aurreratu dute, eta handietan enplegatuen zati batek baino ez du enpresako ekipamenduak erabiltzeko aukera. Bizkaia da teknologia hauek erabiltzen dituzten enplegatuen portzentajerik handienekoa; ondoren Gipuzkoa eta Araba.

2. taula: IKT ekipamenduak dauzkaten establezimenduak, eskualdeka. 2007 urtea.

	Ordenagailu personala		Posta elektronikoa		Internet		Sakelako telefonoa		Web orria	
	%	Aldakuntza*	%	Aldakuntza*	%	Aldakuntza*	%	Aldakuntza*	%	Aldakuntza*
Euskal AE	70,7	2,1	57,6	5,6	61,6	5,2	75,8	3,0	26,2	3,1
Araba	75,2	3,4	60,5	6,1	63,6	5,4	77,6	2,9	28,6	4,3
Bizkaia	68,3	1,0	56,4	4,7	59,9	3,7	76,0	4,3	27,3	4,2
Gipuzkoa	72,5	3,2	58,3	6,7	63,3	7,2	74,8	1,1	23,6	1,1

* Aurreko urtearekiko aldea, ehuneko-puntuetan.

Iturria: Eustat.

Azpitarragarria da, baita ere, aldeak oso adierazgarriak ez badira ere, Araba dela teknologia hauen ezarpenik handiena duena; ondoren Gipuzkoa dator ordenagailu, posta elektronikoa eta Interneten, eta Bizkaia sakelakoan eta Web orrian.

10 enplegu edo gehiagoko enpresetan, txikietan baino erritmo motelagoz bada ere, gertatzen da, baita ere, hobekuntza IKT ekipamenduetan.

Enplegu geruza guztietan hazkunde aipagarriak agertzen badira ere, hauek, enplegatuen kopurua haziz doan neurrian, gero eta murrizagoak dira; izan ere establezimendu handiek hobekuntza marjina doia dute, erabilpen-atalasetik, bestalde, hurbil izanik.

Horrela, txikienek (0-9 enplegu), ekipamendurik apalenak edukita ere, aldeak txikitzen segitzen dute handiekin, hazkunde portzentaje handiagoei esker.

0-9 enplegutako geruzan, aldeak Web orria duten establezimenduen %22,9tik sakelakoa duten %74,7ra doaz; tartean %68,6k ordenagailua dute, %59,1ek Internet eta %54,7k posta elektronikoa.

Bestalde, 10 enplegatu eta gehiagoko enpresen batez bestekoa honako zifretan mugitzen da: %66,9k dute web orria; %97,8k ordenagailua; %89,9 lortu dute sakelako telefonoetan, %94,5 posta elektronikoan eta %93,5 Interneteko sarbideetan.

Euskal enpresen Interneteko sarbidea ADSL lerroen bidez egiten da nagusiki

Interneteko sarbidea duten euskal enpresak gero eta gehiago dira urtetik urtera, guztien %61,6 direlarik; aurreko urtearen aldean %5,2ko hazkundera. Baita ere, Interneteko sarbide nagusiak ADSL lerroen bidez izaten segitzen du, eta haziz doa etengabe; sarbidea duten guztien %81,4a dira.

Ondoren, eta erabilpenean jaitsiz beti, modema dator (%23,3) eta gero RDSI lerroak (%8,2). Azkenik, sakelakoa eta bestelako konexioak haziz doaz; %6,4 eta %8,2 dira gaur egun hurrenez hurren.

3. taula: Interneteko sarbidea duten establezimenduak eta sarbideak. (%)

		Establezimenduak guztira						10 langile edo gehiago					
		2007	2006	2005	2004	2003	2002	2007	2006	2005	2004	2003	2002
establezimenduen %		61,6	56,4	51,9	45,9	42,7	36,5	93,5	93,0	91,1	88,1	86,7	80,8
Bideak	Modema	23,3	26,1	38,0	42,0	49,3	58,4	12,9	13,3	19,8	24,4	25,5	37,5
	ISDN	8,2	9,2	10,4	11,6	15,3	23,1	14,3	13,7	14,4	16,8	25,4	36,2
	ADSL	81,4	71,1	61,7	53,3	40,3	26,2	87,1	82,3	77,5	70,2	58,4	37,2
	Sakelako telefono	6,4	4,1	3,9	2,2	2,0	2,5	11,4	6,1	5,3	3,5	3,2	3,0
	Bestelakoak	8,2	6,5	5,2	3,2	2,8	2,2	13,4	11,1	10,1	7,7	8,0	6,5

Iturria: Eustat.

10 enplegatu eta gehiagoko enpresen artean, %93,5ek Interneteko sarbidea dute. Tamaina horretan ADSL lerroak dira, baita ere, sarbide nagusia (%87,1); gero, urrun, RDSI lerroak datoz (%14,3), modema (%12,9), beste lerroak (%13,4) eta sakelakoa (%11,4).

10 enplegatu eta gehiagoko euskal enpresetatik hirutik bik Web orria dute Interneten.

Web orria edukitzea, norberarena edo ostatatua, nabarmen zabaldu da enpresen artean. Azken urtean sarean badiren enpresak guztien %26,2 dira, %3,1 puntuz hazi ondoren; 10 enplegatu edo gehiagoko enpresen artean %66,9 da portzentajea, %0,5 hazi ondoren.

Web orrietan nagusiki enpresaren gaineko informazio orokorra izaten da, produktuen zerrenda, zerbitzuak e.a.

Orriotako sarbide hizkuntzetan gaztelera da nagusi, %98,0; euskara ondoren, %32,6; ingelesa %28,8 eta beste %15,0.

10 enplegatu edo gehiagoko euskal enpresen %20,4ak merkataritza elektronikoa egin du 2006. urtean.

Soseguz bada ere, merkataritza elektronikoa haziz doa Euskal AEn. 2006.ean euskal establezimenduen %12,8k egin du merkataritza elektronikoa; aurreko urtearen aldean %2,3ko hazkundera. Zifra honetara heltzen da, nagusiki, %11,4k bide elektronikoetatik erosketak egiten dituztelako, %1,8ko hazkundera delarik; neurri txikiagoan ditugu salmentak, %2,9, %1,0ko hazkundearekin.

Zifra hauek handitu egiten dira 10 enplegatu edo gehiagoko enpresetan, non sarean edo bestelako sistema elektronikoen bidez (EDI, datu elektronikoen trukaketa) erosketak edo salmentak egiten dituztenen portzentajea %20,4 den, %0,9 hazi ondoren. Segmentu honetan ere guztirakoaren gehiena erosketa elektronikoak egiten dituztenengandik dator, %17,7 lehengo urtearen aldean %0,4 puntu hazi delarik; eta neurri txikiagoan bide berberetatik salmentak egiten dituztenengandik, %6,4, %1,3 hazi ondoren.

Ohar metodologikoa: Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta (IGI-enpresak) Eustatek 2007ko lehenengo hiruhilekoan egin, lehen sektorea ez den edozein jarduera-sektoretako Euskadiko enpresei zuzendua da. Inkesta honen bidez, datu hauek jakin nahi dira: informazioaren eta komunikazioen teknologietan (IKT) enpresek dituzten ekipamenduak; Internet nola erabiltzen duten; eta merkataritza elektronikoen garrantzia. Euskal AEn kokatutako 7.400 establezimenduren erantzuna du oinarri inkestak.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel: +34-945-01 75 00 Faxa: +34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Juan Luis López

Tel.: Faxa:

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es